

Izen-abizenak:	Irakaslea:
----------------	------------

2 mailako proba idatzia

Probaren atalak:

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- *Entzumena
- *Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi ariketak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu irakurmena eta idazmena egiteko.

Entzunaren ulermena		osotara	Gutxieneko puntuazioa
1.- Erretzeari buruzko metodoak	5 galdera x puntu 2 = 10 puntu	20	----
2.- Jaungoikoa auzitara	10 galdera x 1 puntu = 10 puntu		

Irakurriaren ulermena		osotara	Gutxieneko puntuazioa
1.- Josu Iztueta: Txotx egin	5 galdera x 2 puntu = 10 puntu	20	-----
2.- Gipuzkoako baserritarren kanpaina	1.egitekoa: erantzun zuzena 4 puntu 2.egitekoa: 4 galdera x 1,5 puntu = 6 puntu		

idazmena		osotara	Gutxieneko puntuazioa
1.- idazlana		30 puntu	15 puntu

Entzunaren ulermena

1. ariketa

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan emandako albistea entzungo duzu. Bertan, erretzeari buruzko moduak aztergai dira.

Entzungaia **behin** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Aukeratu erantzun zuzena:

1. Erretzeari uzteko metodo batzuk badaude:
 - a) Nikotinarekiko adikzioa kentzen batere laguntzen ez dutenak.
 - b) Nikotinarekiko adikzioa poliki-poliki kentzen laguntzen dutenak.
 - c) Nikotinarekiko adikzioa denbora gutxian kentzen laguntzen dutenak.
2. Metodo horiek erretzeari uzteko erabiltzen dituzte, baina...
 - a) Metodo horiei esker, erretzaileen % 60k lortzen dute erretzeari uztea.
 - b) Metodo horiei esker, erretzaileen % 70k edo ez dute lortzen uztea.
 - c) Metodo horiei esker, erretzaileen % 70ek lortzen dute uztea.
3. Zientzialariek ikusi dute:
 - a) Erretzaile bakoitzaren beharrak eta metodoen ezaugarriak berdinak direla.
 - b) Metodo horiek guztiak eta erretzaileen beharrak antzekoak direla.
 - c) Metodo horiek guztiak eta erretzaileen beharrak ezberdinak direla.
4. Metodo horien ezaugarriak honakoak dira:
 - a) Partxeek gorputzari nikotina-dosi berdina ematen diote denbora laburrez, zigarroak bezalaxe.
 - b) Txikleak gorputzari nikotina-dosi txikia ematen diote denbora luzez, espraiek bezalaxe.
 - c) Txikleen ondorioak, zigarroenak bezalaxe, motzak dira.
5. Ikerketaren ondorioak hauexek dira:
 - a) Nikotina-partxeak hobeak dira pisu gutxikoentzat, arraza zurikoentzat eta dependentzia handia dutenentzat.
 - b) Txikleak eta hobeak dira lodiago daudenentzat, dependentzia handia dutenentzat eta arraza beltzekoentzat.
 - c) Erretzaileak errazago eta hobeto utziko dio erretzeari bere ezaugarri eta beharren arabera metodoa aukeratzeko badu, ez baitituzte ondorio berdinak.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Entzunaren ulermena

2. ariketa

2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan emandako albistea entzungo duzu. Bertan, Jaungoikoa auzitara eraman nahi dutela entzungo duzu

Entzungaia **behin** entzungo duzu.

Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi laukian, adibidean egiten den bezala, entzundakoa testuan esaten dena baldin bada.

- | | |
|---|-------------------------------------|
| 0. Preso batek Jainkoa auzitara eraman nahi du. | <input checked="" type="checkbox"/> |
| 1. Jainkoa auzitara eraman nahi du deabruaren esku utzi duelako. | <input type="checkbox"/> |
| 2. Hogei urteko kartzela zigorra betetzen ari da ehiza-hilketa batengatik. | <input type="checkbox"/> |
| 3. Auzitara eraman nahi du Jainkoa, baina ez bere ordezkaria den Eliza Ortodoxo Erromatarra. | <input type="checkbox"/> |
| 4. Eroskeria onartzeagatik, estafengatik, ezkutatzeagatik, influentzia trafikoarengatik eta jendearen interesen aurkako gehiegikeriarengatik eraman nahi du Jainkoa auzitara. | <input type="checkbox"/> |
| 5. Presoak dio Bataioa Jainkoaren eta bere arteko kontratua izan zela. | <input type="checkbox"/> |
| 6. Berak dio kontratuan sinatu zuela deabruaren esku ez zuela utziko. | <input type="checkbox"/> |
| 7. Presoak adierazi du Jainkoak hainbat otoitz eskatu zizkiola bere eskariak lortzeko, baina Jainkoak ez duela bere promesa bete. | <input type="checkbox"/> |
| 8. Jainkoa auzitara eramateko eskaera kartzelako zuzendariarengana eta Fiskal Nagusiarengana iritsi da. | <input type="checkbox"/> |
| 9. Justizia arduradunek esan dute epaiketa hori ez dutela egiterik izango. | <input type="checkbox"/> |
| 10. Justizia arduradunek azaldu dute, akusatua deitzeko aukerarik izango balute, auzitegira etorraziko luketela. | <input type="checkbox"/> |

Irakurriaren ulermena

1. ariketa

1. TESTUA

Josu Iztuetak Argia aldizkarian sagardotegien inguruan idatzitako artikulu baten zatia irakurriko duzu. Irakurri ondoren ondoko galderetan erantzun egokia aukeratu beharko duzu.

ARGIA

Txotxeatzen

JOSU IZTUETA

Txotx egin

Urtean bizpahiru sagardotegi egiten dituen horietakoa naiz, eta ARGIAko langile eta kolaboratzaileekin data jarria zegoen martxoaren 23rako. Patuak horrela nahi, eta aurreko astean Oreka TXekoekin egitekotan ginena atzeratu, eta 24an jarri genuen zita. Denboraldiko lehena egin gabe eta orain bi bata bestearen segidan.

Behin baietza eman ez gero kale egin nahi ez eta sagardotegira. Aitortzen dut sagar bati kosk egitea baino gutxiago kostatzen zaidala sagardoari trago egitea, eta edalontzia betetzeko ez dago nahi eta nahi ez upeletara hurbildu beharrik. Gure ustez xanpain botilak zirenak aprobetxatzen zituzten sagardoz betetzeko. Juxtu xanpainari cava deitu behar zitzaioela enteratu ginenean, botila normalizatuak atera ziren, etiketa eta guzti. Hiru laurdeneko botilak 75 zentilitro zituela ikasteko balio izan zuen.

Sagardoak ez zuela mozkortzen ere entzun izan genion norbaiti... Jatorrizko edaria berdin sagardo naturala dioen papertxoan beste hau ere irakur daiteke: alkohola %6, arraioa! Tabako kutxatiletan idatzi dutena irakurrita eta horrela dela sinetsita, ez dago dudarik alkohol horrek ere mozkortzen duela. Neurri kontua izango da guztia!

Txikitan, han aritzen ginen izeba-osaben baserrian, botila barruan geratzen ziren kortxoak ateratzen. Ez pentsa erraza zenik, soka bati korapiloa egin, botila azpikoz gora jarri eta kortxoak sokarekin trabarazi. Orduan gogotik tira behar izaten zen. Atzamarrak minduta amaitzen genuen. Ordurako eskolan ikasiak izango ginen, "más vale maña que fuerza" eta zinez bietatik behar zela, ez dakidana da zein ordenetan... Urte asko pasa dira geroztik eta dena asmatua zegoela zirudienean "eskantziadore" sofistikatu bezain ximple horiek azaldu ziren; erdia kanpora bota gabe dena edalontzira, eta handik eztarriko zultura!

Txotx eta Mojon artean bakailaoa eta txuleta, kontua eta berriketa. Nik "mojon" entzuten dudanean zera etortzen zait burura: errepide bazterreko mugarria, kilometro zenbakiz margotutako harria. Baliteke "deformazio profesionala" edo ordu asko bolantean pasatzearen ondorio izatea. Sagardotegiko mojon eta errepideko mojon inkompatibleak dira, autobusa gidatzeko %0,0 alkohol da muga, deskuidatuz gero, gaizki garbitutako baso batean edandako urak eman dezake hori!

Upel ilunak gero eta gutxiago dira, ontzi distiratsuak ugariago. Aldaketa bisuala da, altzairu herdoilgaitzezko tanketzarrak manometro eta termometroak bistan dituztela daude, osasun eta garbitasun neurriak direla medio, pixkanaka sagardotegi guztietara ari dira zabaltzen. Bada egurrezkozik inoxidablezkora diferentzia antzematen duela esaten duenik. Begiak itxi eta frogatu beharko litzateke. Inguruan egoten den usainean baliteke antzematea, baina dastatzeko orduan ez dut uste...

Galderak:

1. Josu Iztuetak
 - a. aurten hiru sagardotegi egingo ditu
 - b. aurten bi sagardotegi egingo ditu Oreka TXekoekin
 - c. aurten sagardotegirako adostua zuen lehendabiziko hitzordua bertan behera gelditu da

2. Jon Iztuetak
 - a. baietz esan ondoren ezetz esatea ez duelako gustuko, sagardotegira joan zen
 - b. behin baietza eman zuen kalean egon nahi ez zuelako eta horrela sagardotegira joan zen
 - c. sagardotegira joan nahiago du kalez kale ibili beharrean

3. Botilaren etiketa irakurrita, besteak beste, mezu hau uler daiteke:
 - a. sagardoak mozkortzen du
 - b. sagardoa naturala eta jatorrizkoa da
 - c. sagardoz mozkortzea neurri kontua da

4. Josu Iztuetaren ustez botilatik kortxoa ateratzeko,
 - a. sokari indarrez tira egin eta lortu egiten zen
 - b. zailtasunak bukatu ziren tresna sofistikatu bezain sinplea azaldu zenean
 - c. trebea izatea ere beharrezkoa da

5. Zenbaiten ustez
 - a. upel inoxidableetan sagardoari zaporea aldatu egiten zaio
 - b. upel inoxidableetan zapore aldaketa inguruko usainean antzematen da
 - c. egurrezko upeletan inoxidableetan baino handiagoa da aldaketa

Erantzunak:

1	2	3	4	5
----------	----------	----------	----------	----------

Irakurriaren ulermena

2. ariketa

2. TESTUA

BERRIA egunkariak kanpaina bati buruzko albistea ekarri du. Irakurri testua eta ondoren agertzen diren hiru paragrafoetatik aukeratu **laburpen** egokia eta idatzi **letra** beheko esaldian.

BERRIA

Garaian garaikoak

Gipuzkoako baserritarren kanpaina. EHNE-k eta EBEL Emakume Baserritarren Elkartek 'Azokak bizitu! Elikadurarekin-Osasunarekin ez jolastu' kanpaina hasi dute

“Zer jan, hura izan” dio esaera zaharrak, eta Amelia Jauregi EBEL Emakume Baserritarren Elkarteko lehendakariak esaera bere egin zuen atzo Donostian. Azokak bizitu! Elikadurarekin-Osasunarekin ez jolastu kanpaina hasi dute Gipuzkoako EHNE-k eta EBEL-ek. Baserritarrek euren produktuak saltzeko dituzten arazoak eta baliabideak jakinarazi nahi dituzte. Eneko Karrera Gipuzkoako EHNEko lehendakariak atzo esan zuenez, ez dute informazio hutsean geratu nahi, ordea. «Egutegi bat egin dugu, kontsumitzaileek garai bakoitzean zer produktu eskura ditzaketen jakiteko».

Euskal Herrian asko izango dira, ziurrenik, negu gorrian marrubiak jan dituztenak. «Denok dakigu hemen neguan marrubirik ez dela ekoizten», adierazi zuen Karrerak. Hain zuzen ere, kontsumitzaileek gogoeta egitea nahi dute baserritarrek. «Herriarrek azoken gainbeheraren, horrek baserritarrei eragiten dien kaltearen eta multinazionalen inguruan hausnartzea nahi dugu».

Kontsumitzaileengana heltzea da baserritarren helburua, baina azoketako arduradunak ahaztu gabe. «Administrazioek produktuak saltzeko zailtasunak jartzen dituzte. Horrek dakar, nolabait, azoken gainbehera. Eurekin ere hitz egingo dugu, noski». Karrerak atzo adierazi zuenez, «beharrezkoa» da eurentzat azokak bizirik mantentzea. «Nekazari txikientzat eta erdi mailakoentzat irtenbide izan dira eta dira azokak. Hain justu, jendearen ohitura aldatetekin, azokak folklore bihurtzearekin, nekazariok lana galdu dugu».

Baserritarrek, euren ezinegona gizarteratzeko, hainbat ekitaldi egingo dituzte datozen egunotan. Gaur Azpeitian, bihar Ordizian, ostiralean Arrasaten eta larunbatean Tolosan. «Goizetan informazioa banatuko dugu, eta arratsaldeetan baserriko elikagaiei, elikadura osasungarrirei eta eguneroko azoka eta azoka bereziei buruzko hitzaldiak emango ditugu». Helburua? Zer, noiz eta zergatik jaten dugun azaltzea eta ikastea

1. EGITEKOA: Aukeratu hiru paragrafoetatik laburpen egokia eta idatzi beheko laukian:

- A. Gipuzkoako EHNE-k eta EBEL-ek kanpaina berri bati ekin diote kontsumitzaileek garai bakoitzean zer produktu jan behar duten jakin dezaten. Izan ere, multinazionalak kalte handia egin diete kontsumitzaileei eta kanpainak herritarrak hortaz ohartzea nahiko luke. Bestalde, administrazioarekin hitz egiteko asmotan ere badaude azokak folklore bihurtu direlako eta baserritarrek lana galdu dutelako.
- B. Gipuzkoako EHNE-k eta EBEL-ek antolatutako kanpainan kontsumitzaileei bereziki zuzendu zaizkie, besteak beste, azoken beherakadak baserritarrari ekarri dion galeraz ohar daitezten. Kanpainan herritarrak bultzatu nahi dituzte garaian garaiko produktuak kontsumitzera. Administrazioarekin ere mintzatuko dira produktuak saltzeko zailtasunak ken ditzaten. Izan ere, azokak nekazari txiki eta erdi mailakoentzat benetako irtenbidea da.
- C. Gipuzkoako EHNE-k eta EBEL-ek kanpaina bat egin dute kontsumitzaileek garaian garaiko produktuak lor ditzaten. Izan ere, herritarrei osasunarekin ez dela jolasten jakinarazi nahi diete. Bideanbar, produktuak saltzeko dituzten arazo eta baliabideak ezagutarazi nahi dizkiete. Kanpainaren barruan, batetik azoketako arduradunekin mintzatuko dira azoken beherakadari aurre egin ahal izateko, eta bestetik zenbait hitzaldi emango dituzte euren ezinegona gizarteratzeko.

Testuaren laburpen egokia _____ da.

2. EGITEKOA: Zer esan nahi dute ondoko adierazpenek? Irakurri duzun berriaren testuingururako zure ustez egokiena dena aukeratuko duzu.

- 1. **Garaian garaikoak (izenburua)**
 - a. Garaiz hobeki, inoiz ez baino!
 - b. Inoiz ez da berandu aldarrikapenak egiteko
 - c. Sasoiko produktuak kontsumitzeko egokienak
 - d. Garaian gaude baserritarrek beren aldarrikapenak egin ditzaten!

2. Zer jan, hura izan! (1.paragrafoa)

- a. Jaten duguna, huraxe izaten gara!
- b. Gaizki jaten duena gaixotu egiten da eta ongi jaten duena beti osasuntsu!
- c. Jateko hoberenak produktu naturalak.
- d. Kontsumitzen dugun janariaren ardura geurea da.

3. ...lehendakariak esaera bere egin zuen (1.paragrafoa)

- a. ...lehendakariak bere esaera bota zuen
- b. ...lehendakariak esaera zahar berbera egin zuen
- c. ...lehendakariak esaera zahar berdina egin zuen
- d. ...lehendakariak esaera zaharrarekin bat egin zuen

4. ...ez dute informazio hutsean geratu nahi (1. paragrafoan)

- a. ez dute informazioa bakarrik eman nahi
- b. ez dute informazio hutsalik eman nahi
- c. informazio ulergarria eman nahi dute
- d. ez dute hutsik egin nahi informazioa ematerakoan

Erantzunak:

1	2	3	4
----------	----------	----------	----------

Idazmena

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra garbia egiten.
- Gogoratu gutxienerako hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu)

Aukera ezazu hauetako bat:

1. aukera

Egitekoa:

Irakasleak gelako jardueraren barruan, **zure esperientzian oinarritutako deskripzio idatzia** egitea eskatu dizu.

Gaia: Tabakoa gaiari buruz idatziko duzu.

Deskriba ezazu zure harremana tabakoarekin tabakoa ezagutu zenuenetik gaur arte. Ez da ezinbestekoa erretzailea izatea, zure kontakizuna erretzaile nahiz ez erretzaile baten ikuspuntutik egin daiteke, eta, **besteak beste, honako puntu hauetan oinarritu dezakezu: zure lehenengo zigarroa; noiz, nola, zergatik erre zenuen; inguruko erretzaileak familiakoak, lagunak; tabako motak; erretzeari uzteko saiakerak; noiztik ez duzun erretzen; tabakoak sortzen dituen eragozpenak, gaixotasunak; tabakoa arautzen duen lege berria, zure iritzia honi buruz etab.**



Zirriborroetarako orria

2.aukera

Egitekoa:

Eskerrak emateko gutuna egunkarian idatzi

Gaia: Auto-istripua

Pasa den hilabetean istripu larria izan zenuen. Orain ongi zaude, batetik zauriak ez zirelako uste bezain larriak izan, eta, bestetik, istripua gertatu eta berehala ezagutzen ez zenuen gidari bat hurbildu zelako laguntza eskainiz.

Lagundu zizun gidari horri eskerrak eman nahi dizkiozu zuregatik egin zuen guztiagatik. Bere izena ezagutzen ez duzunez, egunkarira bidaliko duzun gutun baten bitartez eginen duzu. **Gutunean azaldu behar duzu nor zaren, istripuari buruzko zehaztasunen bat (noiz, non, nola gertatu zen, nora zindoazen, gidari anonimo honek zer egin zuen ...), gutunaren zergatia edo helburua azaldu, eskerrak eman etab.**



Zirriborroetarako orria



Idazlana:

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA**BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA**

Proba idatzia %50	Irakurmena	%20		20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	%30	Gutxienez 15	30 puntu	60 min.
Ahozko proba %50	Entzumena	%20		20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	Gutxienez 15	30 puntu	10 min.
	GUZTIRA	%100	Gutxienez 60	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzu eta 30, proba bakoitzean. Proba idatzian, gutxienez 15 puntu lortu beharko dituzu idazmenean, eta, ahozko proban, 15 puntu mintzamenean.

Agiria eskuratzeko bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izan beharko zara. Emaitza bakarra emango zaizu: **GAI / EZ GAI**.

HAUEK DIRA IDAZMENA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA) Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagokion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.

Eskatu zaizun egitekoa gainditzeko ezinbestean gutxieneko bat lortu behar duzu, ebaluazio irizpide bakoitzean.

HAUEK DIRA MINTZAMENA NEURTZEKO IRIZPIDEAK

Hitz egiteko era	<i>Autonomia</i>	Independentzia hitz egiterakoan, erantzun Luzeak...
	<i>Hitz jarioa</i>	Hitz egiteko erraztasuna, geldiuneak, Zalantzak, hitzaldiaren kohesioa...
	<i>Ahoskera</i>	Hitzen ebakera eta esaldien doinua...
Diskurtsoa	<i>Adierazpen maila</i>	Diskurtso ulergarria, ideien antolamendua, Koherentzia...
	<i>Lexikoa</i>	Hiztegi egokia, zuzena, aberatsa...
Zuzentasuna	<i>Gramatika eta sintaxia</i>	Deklinabidea, aditza, egitura sintaktikoak...